

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Udalbatzako kideei dedikazio partzialaren araubidea aplikatzea

Bo190712J. Oiongo Udalbatzak, alkateak proposatuta, erabaki du dedikazio partzialaren araubidea aplikatzea alkatetzaren titularrei eta hirugarren alkateordeari.

Honetan dautza aplikazio partzialak:

I. Alkatearen eta hirugarren alkate ordearen dedikazio partziala: 30 ordu asteko. Urteko ordainsari gordina: 21.220 euro, 14 soldatatan ordainduko direnak, dedikazio bakoitzerako. Gizarte Segurantzaren kuota dedikazio partziala duen pertsonako: 6.875,16 euro, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak 7/85 Legearen 75. artikuluan xedatutako eduki eta helmenarekin.

II. Hirugarren alkateordearen dedikazio partzialaren araubideak eginkizun hauek bereganatzea dakar:

1. Kultura, Turismo, jai, Obra eta Zerbitzuen Batzordearen lehendakari izatea.
2. Erakunde hauetan ordezkari titularra izatea:
 - a. Guardiako Mendiaren Antzinako Ermandadea.
 - b. Oiongo Ureztatzaileen Elkartea.
 - c. Ardoaren ibilbidea.
 - d. Arabako Errioxako Landa Garapeneko Elkartea.
3. Erakunde hauetan ordezkari ordezkaria izatea:
 - a. EUDELen Batzarra.
4. Alkatea beharrezko den bileretan ordeztea.

III. Udal kargu publikoen bateraezintasunen arloan indarrean den araudiak eragiten die dedikazio partzianean diharduten pertsonen.

IV. Dedikazio partziala duten pertsonen ezin dute kide anitzeko organoetara joateagatik inolako kalte ordainik jaso. Eskubidea izango dute, aldiz, beren eginkizunak gauzatzean izan dituzten gastuengatik kalte ordainak jasotzeko, baldin eta, aldez aurretik, alkateak haiek baimendu baditu, benetan egin badira eta agiri bidez justifikatuta badaude.

V. Erabaki honek 2019ko abuztuaren 1etik aurrera izango du indarra, atzeraeraginik gabe eta korporazioaren agintaldi hau amaitzen den egunera arte.

VI. Udalbatzaren erabakiz aldatu ahal izango da kalte ordainen araubide hau.

Jendaurrean jartzen da hau udal iragarki taulan, udal web orrian, ALHAOn eta lurraldean saltzen den egunkariren batean argitaratuz.

Oion, 2019ko uztailaren 12a

Alkatea
EDUARDO TERROBA